
TXALUPA
ELGOIBARKO
IKASTOLAKO ALDIZKARIA
EZ AHAZTU
TXALUPA
ALDIZKARIA
JOSTAILU
1978.ko GABONAK

# Kaixo!

Oraingo TXALUPA hau
dena jos tail uz
beteta dator. Ikas
tolan agertu di
ra.
Olentzerok
e
ekarri ote
ditu? Badaespada ere eskerrak
emango dizkiogu. "Gabonak laster
datoz eta Olentzero ere bai. Menditik
dator erregali eta jostailuekin, Haurrak
kaletik abesten: "horra, horra gure Olen-
tzero, pipa hortzian duela eserita dago"
Leihoan nago eta horra non Olentzero ikusten dudan
Poltsa handi horrekin erregaliz beteta bere begi urdin
txapel beltz-beltza, praka urdin, zahar, zikin eta
ikatzez beteta, bizar hazia, pipa ahoan, bastoia
eskuan, alpargata beltz zahar batzuk eta galtzerdi
zuriak nekazarienak bezalakoak, txaleko
handia eta alkondara bat lauki batzuekin,
gorriko handi, gorria, ile beltza
eta esku zikin-zikinak benetan.

Beste leku batzuetan beste batzuk ekartzen
dituzte erregaliak, erregeak, papa-noelak,
santa-klauseek, eta abar BAINA GUREA
ONENA.

HORRA HOR

# OLENTZERO

M.A.Aroz nak

PORRUSALDA

1. Aurreko TXALUPAko Porrusaldan ateratzen ziren hamar herriren izenak idatz itzazu hemen: Getaria, Ataun, Bergara, Orio, Zarautz, Elgoibar, Deba, Arrasate, Eibar, Zumaia.

Gaurko honetan beste hamar aterako zaizkizunez idatz itzazu baita ere hemen: Irun, Zumarraga, Hernani, Oiartzun, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Oñati, Beasain.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | I | N | U | Z | T | R | A | I | O |
| Z | H | P | U | Z | K | O | Z | A | I |
| U | E | K | O | H | O | G | P | E | N |
| M | R | N | N | A | S | A | E | B | A |
| A | N | I | R | S | H | E | I | R | T |
| R | A | R | U | O | I | R | T | E | I |
| R | N | N | N | L | I | Z | I | E | N |
| A | I | T | I | O | K | Z | A | A | K |
| G | I | K | A | T | S | I | D | U | T |
| A | I | R | E | T | N | E | R | R | E |

2.




Nondik joan behar du txoriak zizorea hartzeko



Zenbaki bakoitzari, dagokion kolorea. Mundu zoragarri bat zabaldu-ko da zure begien aurrean.

1.- Horia / 2.- Zuria / 3.- Marroia / 4.- Berde iluna / 5.- Berde argia / 6.- Beltza / 7.- Gorria / 8.- Urdin argia.



Elkar itzazu zenbakiak ordenaz eta marrazki polit bat irtengo zaizu. Gero marraz dezakezu.

5.



# 6. HIZKI SALDA

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| L | E | R | T | X | U | N | D | I | U | R | T | E | B | E | R | R |
| I | O | O | N | E | T | A | K | B | J | A | G | I | Z | O | P | R |
| I | S | S | O | N | T | S | U | O | A | K | O | O | P | A | E | D |
| I | K | Z | K | K | I | Z | U | R | X | U | R | K | O | E | L | G |
| U | A | T | X | A | A | L | U | R | P | K | K | A | H | O | L | N |
| E | R | T | A | T | R | I | K | E | D | A | A | N | T | T | O | N |
| T | B | O | R | R | E | B | N | U | R | T | E | R | A | R | T | E |
| A | I | D | I | S | K | I | I | D | E | M | A | I | T | E | O | R |

Bederatzi kamtari eta talde euskaldunen izenak aurkituko dituzue.

Sobratzen diren hizkiekin, goitik hasita ondo irakurriz gero TXALUPAkoen nahia zein den jakinen duzue.



SAGARRA ZUHAITZERA

5: zubiak 43 zenbakira eramaten gaitu

11: eskailerak 30 zenbakira eramaten gaitu

18: itsasontziz. 29 zenbakira joaten gara

25: euriak hiru txandatan bota gabe uzten gaitu

30: 11 zenbakira eramaten gaitu

40: Gartzelan 5 txanda bota gabe egon behar dugu

45: 1 zenbakira joan behar dugu

# GURUTZEGRAMA

7.



ZEHARKA:

1. Euskal Herriko probintziarik haundiena, bokala.
2. Alderantziz, kontserba ontzia, alde "zahar" en aurkakoa.
3. Elgoibar eta Soraluze arteko mendia. Bokala
4. Ahariaren emea. Kontsonantea. Negazioa
5. "Zuri"ren lehen eta azken hitzak. Metal zurixka. Bokala.
6. Bokala. Bokala. Behiei abiatzeko esaten zaie.
7. Harri bitxia. Uretako ugaztuna
8. Bokala. Zuriz margotu
9. Kanpo. Lore xarmanta
10. Elgoibarko mendia. Alderantziz harridurazko hitza.

GOITIK BEHERA:

1. Baserritarrak.
2. Etxera sartzeko ate ingurua. Bokala. Alderantziz, kanpo
3. Autoen marka. Alderantziz: baldintzarako aurrizkia. Kontsonantea.
4. Abade. Bokala. Musikako nota.
5. Kontsonantea. Portua. Karga azken letrarik gabe.
6. Galiziako errekei deitzen zaio. Idazti
7. Euriaren ondoren, eguzkia ateratzean, ceguratsean agertzen da.
8. Oraindik. Alderantziz: oilategiko erregea.
9. Bokala. bokalaItxaropena galdu.
10. Alderantziz: zure aitaren arreba. Txakurraren ahausia edo zaunka errepikatua

8.



LANA
AUBIXA
SAIOKA 1
ABUZTUA
IGORRA
SAIOKA 2
TXANGOA
SAIOKA 3
TXANGOA
SAIOKA 4
MAIXU-AN DERENOAK
SAIOKA 5
ZAKARRAK
SAIOKA 6

## IKASTOLAREN JOLASA

ARAUAK:

1) Bi, hiru, lau, bost,... jokalarik parte har dezakete. Bakoitzak fitxa bat izan behar du.
2) Dado batekin jokatu behar da.
3) Jokalariak lehenengo kuadroan hasten dira txandaka dadoa botatzen eta fitxa mugitzen eta 24.era lehenego heltzen denak irabazten du. Justu heldu behar du.
4) Dadoak seinalatzen duen eran mugitu behar da fitxa, baina kuadro hauetan zer pasatzen den kontutan euki behar da:
   - 3 AUBIXA: Txanda itxoin behar da
   - 4 SAIOKA hurrengo SAIOKAra pasatzen da eta berdin SAIOKA guztietan.
   - 6 ZIGORRA: Bi txanda bota gabe, zigor bezala
   - 9 TXANGOA: 15. era pasatzen da
   - 15 TXANGOA: 9.era pasatzen da
   - 18 MAIXU-ANDEREÑOAK: Bi txanda segidan botatzen duzu zeren eta koadro horretatik ihes egin behar bait, maisuengandik bezala.
   - 22 GUTTI: Berriz hasi behar da.

Hala. Anaiarreba guztiok joka dezakezue!!

9. JAKIN EZAZU TXALUPA HAU ZEINTZUK EGIN DUTEN:

AEDIBI KRUA

- ALAZA: otitgoroZ.X eta olairrA.X (6.)
- ASAJOU.L : AZREGUM:I
- AREZTIAHUZ ARRAGAS: AIRREBEXTE.A(6)
- ADLAS IKZIH : { AKURRUXT.I / ODNOIRI.M
- KANOBAG: { AGAXTURRUG.I (6.) / ZINAXTE.M (6.) / ZEDNANREH.A (6.)
- AIKIMOK { AGAXTURRUG.A (5.) / ALABAZ.I (5.) / AIRREBEXTE.P (5.)

10. ONDORENGO HORRIALDEETAN, PAPERA MENPEKOTZAT HARTU ETA BERTAN NAHI DUZUNA IDATZ EZAZU. GERO IKASTOLARA BUELTAN BESTEEI IRAKURRI.

# EZAGUTUZ

Ez da denbora asko oraindik zuekin egon nintzela eta ba nator berriz ere Gabon eta Eguberrien usainera. Hemen nauzue berriro gure Herriaz, Euskal Herriaz zerbait gehiago irakatsi nahirik. Hator, hator, mutil etxera" entzun eta barru guztia dar-dar jarri zait herri-minez eta itxaropenez.

- Lehengo ikasgaia erraza izan al zen? Bete al zenuten Euskal Herriko mapa gure hiriburuen izenez? Konturatu al zineten gure Herria ez dela Elgoibarren bukatzen? Bere txikian Euskal Herria handia dela? Bai? Hala balitz poztuko nintzateke.

Txalupa naizenez itsasotik zehar ibiltzen naiz gehienbat eta handik Euskal Herriko mendi gailurrak ikusten dira lehenik eta ongien. Batzuk elurrez estaliak ikusi ditut eta besteak ez. Hala ere, zein ederrak diren gure mendiak!

Seguraski zuek ere ezagutzen dituzue batzuk. Zenbat gailurretara iritsi zarete? Zeintzutara? ...Kalamua, Kondia,...
...Morru, Anate, Karakate...
..........

Nik hauek ikusi **izan** ditut Kantauritik nere itsasaldietan: Sollube, Anboto, Gorbea, Klamua, Ernio, Izarraitz, Txindoki, Haitzkorri, Aiako haitzak, Larrun, eta abar. Beste batzuk ez dira ikusten baina hor dira gure Herriaren zutabe eta zaindari sendo: Orhy, Hiru Erregeen mahaia, Ahuñamendi, Aralar eta abar.

Bai, mondi oder eta aipagarri asko baina izenak zerorrek jarri beharko dituzu behar diren tokietan.

Ezetz asmatu denak!




..................................................

..................................................

..................................................

HURRENGOARTE!!




Bihotzak ikara ematen
ematen dit gauean
Izar bat sortu da
zeru zabalean
Ba datoz, bai ba datoz
gabonak gainean

Erregeak ba datoz
Olentzero ere bai
Gaitezen euskaldunak
Guztiok anai



Gaztaina errea
danbolinean
intzaur saltsa
eltzean
eta aza horioa
lapiko beltzean.



Pozez txoratzen nabil
Gabon egunean
pentsatzen ari naiz berean
Urteberri egunean



Elurra kalean
gu pozik etxean
suaren epelean
sukalde magalean



# JURGI eta IKATZ




(jarraituko da)